

**Interreg**  
**POCTEFA**  
**LINGUATEC**



2021-06-17

[Es/Fr](#) - [Ara](#) - [Occ](#)

## MUGAZ GAINDIKO KONGRESUA

Adimen artifiziala eta mugaz gaindiko lankidetzak: azpiegitura linguistiko, adimendun eta irisgarri baten bidean



### Lehenengo lansaioa Pauen

LINGUATEC proiektuaren Mugaz gaindiko Kongresuaren lehen saioa Paueko Complexe de la République-n izan da, eta bertan bildu dira LINGUATECen ardatz diren hiru hizkuntzetako (euskara, aragoiera eta okzitaniara) goi-mailako ordezkariak, baita partzuergoa osatzen duten erakundeetakoak ere.

Elhuyarko koordinatzaile nagusiak, Jon Abril Olaetxeak, eta Lo Congrès Permanent de la Lengua Occitana-ko lehendakariak (bi erakundeek koordinatzen dute proiektua), Gilabèrt Mercadièrek, ireki dute biltzarra, eta, jardunaldi osoan gogoeta interesgarriak egin dtuzte hizkuntza gutxituak indartzeko funtsezko gaiak buruz, eta garrantzi berezia eman diote mugaz gaindiko lankidetzari. Entzuleek online jarraitu du ekitaldia, pandemia dela eta.



### Ardatz nagusia: mugaz gaindiko lankidetzak

Mugaz gaindiko lankidetzak duen garrantziaren inguruan jardun dira jardunaldian, bi mahai-ingurutan. Alde batetik, "Europako eta mugaz gaindiko lankidetzak, Pirinioetako hizkuntzen garapen digitalerako esparru pribilegiatua" izan dute mintzagai Charline Claveau Okzitaniarren Bulego Publikoko lehendakariak, Antton Curutcharry Euskararen Bulego Publikoko lehendakariak eta José Ignacio López Susin Aragoiko Gobernuak hizkuntza-politikako zuzendari nagusiak.

Bestalde, bigarren mahai-inguruan LINGUATEC partzuergoa osatzen duten sei erakundeetako ordezkariak izan dira, eta honako ideia honi buruz aritu dira: "Pirinioetan mugaz gaindiko hizkuntza-azpiegitura eraikitzeke adimen artifizialeko bikaintasun-sare bat lortzeko bidean".

LINGUATEC mugaz gaindiko kongresuaren lehen egunean, halaber, sortutako ezagutza eta garatutako teknologiak transferitzeko akordioa sinatu da zenbait enpresen eta partzuergoko erakundeen artean.

### Begiratu LINGUATECen garatutako baliabideak

---

"Gaur egun, beharrezkoa da hizkuntzek osasun ona izatea ingurune digitalean, aurrera egin eta garatuko direla bermatzeko, eta horretarako, ezinbestekoa da beharrezko baliabideak eta tresnak izatea. LINGUATEC proiektuaren hiru urteko ibilbidean, adimen artifiziala oinarri duten hizkuntza-teknologiak garatzen jardun dugu. Teknologia horiek landutako hizkuntzen digitalizazio-maila goratu dute, euskararena bai, baina, batez ere, aragoierarena eta okzitanoarena. Mugaz Gaindiko Kongresu hau topaleku bat da, egindako lanari eta ikasitakoari buruz jarduteko, eta aldi berean, mugarri bat, mugaz gaindiko hizkuntza-azpiegitura eraikitzen jarraitzeko".



EFA 227/16 LINGUATEC proiektua bigarren POCTEFA deialdian onartu zuten, eta 1.227.500 euroko aurrekontua du; Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) % 65a finantzatu du Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bitartez.

[Eguneratu harpidetza-datuak](#) edo [eten harpidetza](#).

